

5.BANAKETA ETA KOMUNIKAZIOA

Gure produktua bezeroengan heltzeko jakitera emango dugu bai publizitatearen bai web orrialdearen bidez. Marketing-a erabiltzea izango da gure indargunea, hainbat ekintzetarako erabili ahalko dugulako, esaterako, bezeroenganako arreta jartzea edota saltzeko promozioak eskaintzea.

Kanaleei dagokionez, mota guztietako kanalak erabiliko ditugu: komunikazio - kanalean 4 mota bereiz ditzakegu:

1. Pertsonala: komunikazioa zuzena izango da pertsonen artean egingo baita
2. Masiboa: kanak hau idatzia, telebista bidez edo informatikoa izango da. Gure kasuan irratia bidez egin ahalko den iragarkia edo gure web orriaren bidez izango da.
3. Bilerena: gure hornitzaileekin izango ditugun bileretan islatuta izango dira
4. Bilera informatzaileak: gure produktuan interesa duten pertsonak joan ahal izango dira emango ditugun bileretara, gure produktua hobeto azaltzeko.

Banaketa kanaleei dagokionez, beste enpresa bat kontratatuko dugu gure produktua banatzeko. Bezeroek produktua erostean ordainketa bakarrean ordainduko digute. Azken bezeroari salduko diogu produktua.

Gure helburuetako bat bezeroekiko harremanak ahalik eta hobek izatea izango da, hainbat estrategiak erabiliz: lehenengo pausua bezeroen eskakizunak entzutea da eta bigarrenik arazo bat burutzen baduzu barkamenak eskatu. Horrez gain, bezeroari ahalik eta tratu onena ematea da helburu nagusia.

